

justizian heztea



editorea:
**BJKNren
Komunikazio
Bulegoa**



Gure gizartean joko-arauak daude. Legeak dira. Gure eskubideak eta betebeharrak agintzen dituzte, eta besteekin nola jokatu behar dugun esaten digute. Epaileak, lege horiei jarraikiz, gure arteko gatazkak konpontzeaz arduratzen dira, beste irtenbiderik ez dagoenean.



> epailea

Epailea da epaitzeko eta epaia betearazteko ahalmena duen bakarra; hau da, legea aplikatuz hartu den erabakia betetzera behartu dezakeen bakarra.

Espanian 5.300 epailetik gora daude, eta horietatik erdia baino gehiago emakumeak dira. Gizartean sortzen diren gatazkak modu baketsuan ebazten dituzte. Urtero, epaitegi eta auzitegietara milioika auzigai iristen dira, eta horiei guztiei erantzuna eman behar zaie.

Gainera, epaileek gure egunerokotasuneko zenbait alderditan **esku hartzen dute**. Ezkondu eta dibortziatu egiten gaituzte edo hauteskundeak behar bezala egiten direla ikuskatzen dute.



> fiskalak, justizia administrazioaren letraduak, abokatuak, lekukoak eta perituak

Fiskalek legezotasuna defendatzen dute gizartearen izenean. Epileari frogak eskatzen dizkiote, eta, epaiketa batean, akusatu edo absoluzioa eska dezakete.

Justizia Administrazioaren letraduak fede publiko judizialaren titularrak dira, eta epileen edo epaimahaien erabaki guztiak betetzen direla ziurtatzeaz arduratzen dira.

Abokatuak beren bezeroaren interesak

defendatzen dituzte. Bezeroa biktima edo kaltetun bezala agertzen denean, akusazioaren abokatuak dira.

Lekukoak epaitzen den ekintza edo gertaera ikusi dute, eta haien lekukotzak egia argitzen lagundu dezake.

Perituak juridikoak ez diren hainbat arlotako espezialistak dira. Gertaera baten kausak aztertzen eta azaltzen dituzte.



> non lan egiten dute epaileek?

Justizia Administrazioa mailaka egituratzen da. Epaile edo epaimahai baten erabakia maila goragoko organo batek berrikus dezake.

Maila gorenean **Auzitegi Gorena** dago. Egoitza Madrilen du, eta haren jurisdikzioa estatuko lurralde guztietara heltzen da. Azken hitza du auzitegietara iristen diren kasuetan.

Auzitegi Nazionalak ere Espainia osoan du jurisdikzioa, eta terrorismoaz, narkotrafikoaz eta halako delituez arduratzen da, besteak beste.

Justizia Auzitegi Nagusiek autonomia erkidegoaren lurralde-eremuan dute jurisdikzioa, eta erkidegoaren izena hartzen dute eta hortxe dute beren egoitza.

Probintzia Auzitegiek beren probintziako lurralde-eremuan dute jurisdikzioa, eta haren izena hartzen dute.

Probintzia-mailan, era berean, Zigor-arloko **Epaitegiek**, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiek, Lan-arlokoek, Espetxe-zaintzakoek, Adingabeen Epaitegiek eta Merkataritza-arlokoek lan egiten dute.

Barruti judicialak dira lurralde-zatiketa txikiena. Espainian 431 daude, eta horietako bakoitzak, gutxienez, Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegi bat eta Emakumearen Aurkako Indarkerian eskumena duen Epaitegi bat ditu.

Lehen Auzialdiko Epaitegirik ez duten udalerrietan, **Bake-Epaitegiak** daude. Bake-epaileak ez dira epaile profesionalak, eta oso eskumen mugatuak dituzte.

epaileek ebazten dituzten gai batzuk



arlotzibilean>

Ezkontzen, banantzen eta dibortziatzen gaituzte.

Adingabeen eta ezgaituen eskubideak bermatzen dituzte.

Liskar ekonomikoak ebazten dituzte.

zigor-arloan>

Sexu-eraso eta lapurreta bezalako delituak zigortzen dituzte.

Krimenak ikertzen dituzte.

Ustelkeriari jazartzen diote.

Administrazioarekiko Auzien arloa>

Isunen aurkako errekurtsuez arduratzen dira.

Zerga-kontuei buruzko erabakiak hartzen dituzte.

Hirigintza- eta ingurumen-delituak auzipetzen dituzte.

Lan-arloa>

Kaleratzeen gatazkei buruzko erabakiak hartzen dituzte.

Hitzarmenei eta lanaldiari buruzko arazoak ebazten dituzte.

Langileen greba-eskubidea arautzen dute.

> zer egiten dute epaileek?

Arlo Zibileko Epaileek

partikularren arteko gatazkak ebazten dituzte, adibidez: familiako kontuak —dibortzioak edo adingabeen zaintza, esaterako—; jaraunspenen edo alokairuen inguruko liskarrak; kontsumitzaileekin lotutako demandak; bankuen aurkako erreklamazioak, eta diru-erreklamazioak enpresa edo partikularrei.

Zigor-arloko epaileak

mota guztietako delituak zigortzeaz arduratzen dira, esaterako: sexu-askatasunaren aurkakoak —bortxaketak, kasu— eta bizitzaren aurkako erasoak —erailketak, adibidez—.

Administrazioarekiko Auzien epaileak

Administrazio Publikoen aurkako auziez arduratzen dira, esaterako: trafikoko arau-hausteen isunen aurkako errekurtsioak aztertzen dituzte eta epaia ematen dute zerga-, hirigintza- eta ingurumen-arloko kontuen inguruan.

Lan-arloko epaileak

enpresen eta langileen arteko gatazkez arduratzen dira, kaleratze, kontratu, lanaldi, pentsio eta halako kontuen inguruan.

> nolakoa da zigor- arloko epaiketa bat?



Epaileak edo magistratuak zuzentzen du beti epaiketa. Delituak bost urte baino gehiagoko zigorra badu, hiru magistratuk osaturiko epaimahai bat egongo da. Horietako bat lehendakaria izango da. Aretoko mahai nagusiaren erdian esertzen da.

Akusatua aretoaren erdialdean edo bere abokatuaren alboan jartzen da.

Delitu bat egiteaz akusaturik dagoen pertsona orok isilik egoteko eskubidea du, inor ez baitago behartuta bere buruaren aurka deklaratzera. Denok dugu abokatu bat izateko eskubidea. Ezin badugu ordaindu, abokatu bat jartzen digute.

Epaimahaiaren ezkerrean **fiskala** eta, baldin badago, akusazio **partikularraren abokatu**a eseriko dira. Eskuinean, abokatu defendatzailea. Lehenengo, fiskalak egiten ditu galderak; gero, akusazio partikularrak –halakorik egonez gero- eta, azkenik, defentsak.

Lekukoen eta perituen adierazpenak entzun ondoren, epaimahaiak fiskalaren eta akusazioaren eta defentsaren abokatuen txostenak entzungo ditu, eta akusatuari hitz egiteko azken aukera bat emango dio. «Azken hitza esateko txanda» da. Ondoren, epaiketa «epaiaren zain» geldituko da.




> zinpekoen epaimahaia

Zenbait delitu —giza hilketak eta mehatxuak, esaterako— **Zinpekoen Epaimahaia**k epaitzen ditu, eta horrek herritarrek Justizia Administrazioan parte hartzea ahalbidetzen du. Espainian, Epaimahaia zuzenbidearen gaineko ezagutzarik ez duten 9 pertsonak eta magistratu batek osatzen dute. Bederatzi pertsona horiek akusatua errudun den edo ez erabakitzen dute, eta magistratuak, epaimahaiko lehendakariak, epaia ematen du. Akusatua erruduntzat jotzeko, 9 epaimahaikidetik 7ren botoa behar da gutxienez.



> genero- indarkeria



Espanian **emakumearen aurkako indarkerian espezializatutako** ia bostehun epaitegi daude. Epaileek esku hartu ahal izan dezaten, beharrezkoa da norbaitek gertaerak jakinaraztea salaketa baten bidez, edo polizia-atestatuen edo parte medikoen bidez.

Epaileak **72 ordu** ditu biktimak eta salatuak esan beharrekoak entzuteko. Denbora-tarte horretan, epaileek kautelazko neurriak har ditzakete biktima edo tartean dauden adingabeak babesteko —adibidez, seme-alabak—. Gainera, haiek osasun-laguntza jasotzeko eskubidea dute.

Pertsona batek beste bat maite badu, ez du sekula joko ezta irainduko ere.

Tratu txarren aurkako arreta telefonoa

016



> eta delitu bat egiten badut?

14 urtetik beherakoak ezin dira delitu baten erantzuletzat hartu. 14 eta 18 urte artean badituzu eta delitu bat egiteaz akusatu bazaituzte, zure kasua **Adingabeen epaile** batek aztertuko du. Haren helburua, zigortzea baino gehiago, zure jokabidea zuzentzea da, gaizkile bihurtu ez zaitez. **Adingabeen Fiskaltza** ere zure eskubideak eta legea errespetatzen direla ziurtatzeaz arduratuko da. Era berean, **Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetan unitate** espezializatuak daude,

delitu horiek ikertzeaz eta adingabeekin lan egiteaz arduratzen direnak.

Delituak egiten dituzten adingabeak ez doaz kartzelara, baina kasu larrietan baliteke barneratzeko zentro itxi batera bidaltzea. Beste kasu batzuetan, zigorra komunitaterako lanak egitea izan daiteke.



> Nork gobernatzen ditu epaileak?

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (BJKN) epaileen gobernu-organoa da. Epaileak hautatzeaz eta prestatzeaz arduratzen da, baina funtzio nagusia haien independentzia babestea eta bermatzea da. Gainera, Karrera Judizialaren ohiko kudeaketaz arduratzen da; esaterako, baimenez edo lekualdatze-lehiaketaz.

Garrantzitsua da jakitea Kontseilua ez dela auzitegi bat, eta ez duela auzitegi lana egiten. Halaber, epaileei ezin die agindurik eman hartu beharreko erabakien inguruan.

BJKNa 20 kidek eta lehendakari batek osatzen dute. Lehendakaria **Auzitegi Goreneko** burua ere bada. 20 kideetatik 12 epaileak dira, eta beste 8ak gaitasun handiko legegileak dira, hala nola, abokatuak, fiskalak, eta abar. 20 kideak Diputatuen Kongresuak eta Senatuak aukeratzen dituzte.

> zenbait termino juridiko

akusazio partikularra>

Delituak kalte egin dion pertsona fisikoa edo juridikoa, erruduna zigortzeko eskatzen duena.

herri-akzioa>

Edozein pertsona fisiko edo juridikok akusazio bat egiteko egin dezakeen ekintza, delituak berari kalterik egin ez badio ere.

ikertua>

Delitu baten egilea nor izan den argitzeko prozesuan ikerketapean dagoen pertsona.

prozesatua>

Delitu bat egin izanaren zantzu sendoek seinalatzen duten pertsona. Pertsona bat, lehenik eta behin, ikertu egiten da eta, gero, prozesatu. Ikertu guztiak ez dira prozesatu izatera iristen.

autoa>

Idazki ofizial bat da, non epaile batek erabaki arrazoitu bat hartzen duen, eta erabaki horrek eragina izango du ikerketan eta akusatuaren zorian.

salaketa eta kereila>

Salaketa delitu izan daitezkeen egitate batzuen kontaketa da, eta kereila pertsona jakin baten aurka zuzenduta dago.

demandatzailea eta demandatua>

Demandatzaileak prozesua hasten du auzi zibiletan, administrazioarekiko auzietan eta lan-arloko auzietan. Demandatuaren aurka zuzentzen da prozesua.

instrukzioa>

Ikerketa egiteko, gertaerak zehazteko eta erantzuleak behin-behinean identifikatzeko fasea da. Instrukzioa epaile batek egiten du, betiere epaia emango duen magistratua ez den epaile batek.

kostuak>

Epaiketa batean amaitzen den prozesu baten ondorioz sortzen diren gastuak dira. Epaileak kostuak ordaintzeko zigorra ezar dezake; alegia, aurkako aldearen abokatuaren eta prokuradorearen gastuak ordaintzeko zigorra.

zigorra>

Epaileak kondenatuari egindako delituagatik ezartzen dion zigorra da. Espetxe-zigorra izan daiteke, zigor ekonomikoa edo beste eskubide batzuk kentzeko zigorra; esaterako, zerbait egiteko gaitasunik gabe uztea (desgaikuntza) edo gidabaimena kentzea.

epaitza>

Epaia azken zatia da, non zigorra edo absoluzioa adierazten den.

errekurtsoa>

Erabaki judizial bat aurkaratzeko bitartekoa, berriro azter dezaten.

prebentziozko espetxealdia>

Askatasuna kentzen duen neurria, epaile batek kondenatua egon aurretik xedatzen duena. Espainian, pertsona baten gehienezko prebentziozko espetxealdia lau urtekoa da. Epaileek prebentziozko espetxealdia ezar diezaiokete pertsona bati, soilik uste baldin badute ihes egin, frogak suntsitu edo berriz delitu bat egin dezakeela.

epaia>

Epailearen erabakia da, prozesuari amaiera ematen diona.



> eta epaile izan nahi badut?

Epaile izateko, Zuzenbidean lizentziatu edo graduatu behar da, eta oposizio batzuk gainditu behar dira. Horren ondoren, Bartzelonako Eskola Judizialean ikastaro teoriko-praktiko bat egin behar da. Azkenean, gaindituz gero, lantokia hautatzen da, karrera judizialeko kide gisa.

Oposizio berberak dira epaile izateko eta fiskal izateko, baina fiskal izateko karrera hautatzen dutenek ez dute gero Eskola Judizialera joan behar: prestakuntza Ikasketa Juridikoen Zentroan amaitzen dute, Madrilén.

Nahiz eta oposizioak diren Karrera

Judizialean sartzeko bide ohikoena, badaude bestelako sarbide batzuk ere. Urte kopuru zehatz batean profesionalki jardun duten legelariak —abokatuek, Justizia Administrazioaren letraduek, fiskalek, e.a.— epaile bihurtzeko aukera dute. Horiek ere, proba batzuk gainditu, eta Eskola Judizialean ikastaro bat egin behar dute.

Oposizioei buruzko informazio gehiago hemen:

www.poderjudicial.es

> ba al zenekien...?

justizia herriarengandik sortzen da>

Espainiako Konstituzioak dio Justizia herriarengandik datorrela, hark baitu subiranotasun nazionala. Horrek ematen die zilegitasun demokratikoa Estatuko Botereei.




balantza>

Justizia irudikatzen du, oreka da eta argudio guztiak aztertzeko gaitasuna.



mailua eta txilina>

Mailua eta txilina dira mundu osoan gehien erabiltzen diren sinboloak Justizia irudikatzeko. Espainian, mailua eta txilina apenas erabiltzen dira.



toga>

Espainiako epaileek toga beltzak erabiltzen dituzte. Abokatuek, fiskalek eta abarrek erabiltzen duten jantzi berdina da, eta haien guztien arteko berdintasuna irudikatzen du. Epaileak ezkutuagatik —zilar kolorekoa epaileentzat eta urre kolorekoa magistratuentzat— eta eskumuturreko parpailengatik bereizten dira. Munduko toga guztiak ez dira berdinak, ezta beltzak ere. Beltzaren ondoren, gorria da gehien erabiltzen den kolorea



“vete a hacer puñetas”>

Parpailak egitea lan luze, motel eta astuna zen, eta arreta handia eskatzen zuen. Hortik dator «vete a hacer puñetas» gaztelaniazko esamoldea, denbora batean urruti ikusi nahi duzunari esaten zaiona. Euskarazko baliokidea antzarak ferratzera edo pikutara bidaltzea da.

eskumuturreko parpailak>

Gaztelaniaz, puñetas. Magistratu eta fiskalek togaren mahuketan beren kategoriaren ikur gisa daramatzaten apaingarriak dira. Epaileek, epailetzan lehenengo mailan daudenez, ez dute parpailarik eramaten.





> jarri gurekin harremanetan

Informazio judiziala interesatzen
bazaizu, jarrai iezaguzu

www.poderjudicial.es

Twitterren

 [@PoderJudicialEs](https://twitter.com/PoderJudicialEs)

Informazio gehiago behar
izanez gero, Botere Judizialaren
Kontseilu Nagusiko Komunikazio
Bulegora edo Justizia Auzitegi
Goreneko Komunikazio Bulegora
deitu dezakezu. Gure telefonoak
hemen topatu ditzakezu

www.poderjudicial.es

> frogatu zenbat dakizun

1.- Epaile izateko...

- Historia ikasi behar dut
- Batxilergoa amaitzean oposizioak egin behar ditut
- Zuzenbidea ikasi, eta oposizioak egin behar ditut

2.- Arlo Zibileko epaileak honako gai hauetaz arduratzen dira...

- Familiako kontuez
- Erailketez
- Administrazio Publikoaren aurkako auziez

3. - Espainiako epaileek erabiltzen dituzten togak...

- beltzak dira
- beltzak dira, eta eskumuturrean parpailak dituzte
- beltzak dira, eta ileordea ere janzten dute

4.- Zer da epai baten epaitza...

- Epailearen sinadura
- Epailearen erabakia adierazten den atala
- Gertaeren kontaketas

5.- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia...

- epaiak ematen dituen da
- Auzitegi Gorenaren antzekoa da
- epaileen gobernu-organoa da

6.- Nortzuek osatzen dute Zinpekoen Epaimahaia...

- 9 herritarrek
- 7 epailek
- 9 herritarrek eta epaile batek

7.- Kostu judizialak...

- erabaki judizial bat dira
- prozesuaren ondorioz sortzen diren gastuak dira
- epailearen argudioak dira

8.- Zein da genero-indarkeriazko tratatu txarren biktimen arretarako telefonoa?

- 010
- 116
- 016



oharrak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....





CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL
Calle del Marqués de la Ensenada, 8
28004 Madrid

Oficina de Comunicación del CGPJ

www.poderjudicial.es

 [@PoderJudicialEs](https://twitter.com/PoderJudicialEs)